


Beldurraren habitata, margotutako leku bat



Pintura, jokia eta zoria abiapuntutzat hartuta, fikziozko eta fantasiako mundu bat sortuko dugu. Gure beldur eta lotsak bertako biztanleak izango dira, izaki bitxien itxura hartuta.

Helburuak

- Jose Castiellaren obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Gure beldur eta lotsei buruz hausnartzea.
- Zoria sormenezko baliabide gisa erabiltzea eta harekin esperimendatzea.
- Prozesu artistikoak talde-katarsirako tresna gisa erabiltzea.

Aipamenak

- Beldur kosmikoa, Lovecraft (gaztelaniaz): <https://www.xataka.com/literatura-comics-y-juegos/lovecraft-lo-sabia-el-horror-esta-ahi-fuera>
- Kontakizunen liburua: "Marteko kronikak", Ray Bradbury (1950)
- Komikia: Jean Giraud (Moebius) <https://graffica.info/moebius-ciencia-ficcion/>
- Pintura:
 - Max Ernst- Artistari buruzko ponentzia baten audioa. <https://canal.march.es/es/coleccion/inauguracion-exposicion-max-ernst-estetica-max-ernst-19714>
 - El Boscori buruzko dokumentala: "El jardín de los sueños", López Linares. Trailerra: <https://www.youtube.com/watch?v=P0AHodcVwgY>
- Hirameki teknika: <https://elasombrario.publico.es/hirameki-divertido-sudoku-las-manchas-los-garabatos/>
- Philip Guston. Margolaria. <https://www.museoreinasofia.es/exposiciones/philip-guston-retrospectiva-pintura>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Jose Castiellaren lana ikusi, eta galdera hauek botako ditugu:
 - Zer dute komunean haren lanek? Komunean dituzten hiru elementu bilatu, eta ikaskideekin ahoz partekatuko ditugu.
 - Mihiseek beste irudiren bat ekartzen al digute gogora? Bururatzen zaizkigun erreferenteak arbelean idatziko ditugu. Interneten bila ditzakegu, baita dokumentu honetako Aipamenak atalean proposatutakoak ere.
2. Banaka, daukagun beldur edo lotsa bat aukeratuko dugu. Kartoi mehe batean irudikatuko dugu, pintzel eta margo akrilikoz edota errotuladorez, zoriz egindako orbanetatik abiatuta. Horretarako, arbelean adierazitako erreferenteetan eta Jose Castiellaren lanetan inspira gaitezke.
3. Amaitzean, beste lau pertsonarekin komunean jarriko dugu. Zein dira gure beldurrak? Gure lotsak? Zer forma eduki dezakete? Zer testura? Zer usain? Zer kolore?

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Bost laguneko talde horietan, lauk izara edo oihal handi bati eutsiko diote izkinetatik, eta bosgarrenak pintura botako du, besteek euskarria poliki-poliki mugitzen duten bitartean. Musika jar dezakegu, gure mugimenduen erritmoa markatzeko. Hainbat koloreekin errepika daiteke ekintza, eta ardurak txandakatu. Lehortzen utziko dugu.
2. Oihal lehorraren gainean, bakoitzak bere beldurra edo lotsa irudikatuko pertsonaia bat sortuko du, lehenago banaka egin genuen ariketan oinarrituta. Errotuladoreekin edo pintzel finekin eta pintura akrilikoarekin egin daiteke.
3. Pinturari bolumena emango dion elementu baten gainean jarriko dugu oihala. Adibidez: mahai txiki baten gainean, lurreraino iristeko moduan; edo eskailera batzuen gainean; edo paretako izkina batean, aulki bat estaliz... Zer geometria agertzen

dira? Nola sar ditzakegu gure mihisean? Nolabait nabarmendu edo ezkuta ditzakegu?

4. Buztin bigunezko eskultura txikiak egingo ditugu; beste mundu bateko izakiak izango dira, sortutako eszenatokian biziko direnak.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Ipuin laburren lehiaketa bat antolatuko dugu. Ikastetxe osoari irekiko diogu deialdia, sortu dugun fantasiako munduan gertatzen den kontakizun bat idazteko. Entregatzeko data erabaki, eta jasotako kontakizunak irakurtzeko saio bat koordinatuko dugu instalazio artistikoan bertan.
2. Instalazioan sortutako pertsonaiei argazkiak aterako dizkiegu komiki bat egiteko, lehiaketan jasotako ipuin laburren bat kontatu dezakeena.